



Soraluzeko leku-izen hautatuak

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Jon Basauri Alberdi

Grada: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2021-2022

Tutorea: Julen Manterola

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Laburpena

Gradu Amaierako lan hau toponimiazko lana da, eta Soraluzeke leku-izenak ditu aztergai. Aurrez bildu dudan datu-base zabal bat oinarri hartuta, nire asmoa izan da toponimo batzuk hautatzea eta aztertzea, esanguratsu iruditu zaizkidanak, eta horien analisi xehea egitea. Azterketa horrek aukera eman digu toponimiak eskaintzen dituen hainbat alderditan sakontzeko: etimologian, dokumentazioan, lexikologia dialektalean, etab.

Lan hau bost ataletan dago banatua. Lehenengo atalean (§1) sarrera bat egin dugu, gaiaren nondik norakoak zehazteko. Lana egiteko erabili dugun datu-basea noiz eta nola egingo dagoen azaldu dugu, zertarako erabili den eta etorkizunean zertarako erabili nahiko genukeen. Gure lanaren oinarrian dauden toponimoen hautaketa egiteko zein erizpide erabili dugun zehaztu dugu eta hautatu toponimoen zein alderdi hartu dugun kontuan analisia egiterako orduan. Jarraian (§2), corpusa eta iturriak aurkeztu ditut: zein artxibotan begiratu dudan, landa eremuko lekukoei egindako elkarrizketak nolakoak izan diren, zein zailtasun izan dugun eginbide hortan etabar. Kontuan har bedi hainbat toponimoren lekukotasunak galduak daudela, urtean-urtean gehiago galtzen direla eta izen asko artxiboetatik baizik ezin izan ditudala jaso.

Ondokoa da lan honen muina biltzen duen atala (§3): bertan, toponimo hautatu batzuk eman ditugu, guztiak eredu jakin baten arabera antolatuak (toponimoaren ohiko forma, iturriak, lekukoengandik jasotako forma eta analisia). Toponimook biltzeko eta lan horien gaineko azterketa aurkezteko, eredu gisa Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bildumako zenbait lan hartu dugu eredu gisa.

Toponimoen hautaketa ezinbestean subjektiboa izan da, baina, hala ere, irizpide nagusi jakin baten arabera jokatu dut: leku-izenaren analisiak zerbait esanguratsua behar du izan dela alderdi dokumentaletik dela etimologiko zein lexikologikotik. Lanaren aurreko bertsio batean 100 toponimoren analisia landu genuen, baina, aintzat hartuta gehiegizko neurria hartzen zutela, 75 toponimoren azterketara murriztu behar izan dugu hautaketa hau.

Azkenik, ondorioen atalean (§4), toponimoen analisisetik lortu ditugun aurrerapenak laburbildu ditut: zenbait kasutan, gaur egun erabat ilunak diren toponimoen osaera argitu dugu; beste toponimo batzuek, berriz, balio izan digute zenbait aldaera dialektalen gorabeherak aztertzeko, etab.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Corpusaren azalpena.....	5
3. Toponimoak.....	6
4. Ondorio zenbait.....	37
5. Bibliografia.....	38

1. Sarrera

2012. urtean Soraluzeke Udaleko Euskara arduradunaren deia jaso nuen herriko toponimia aztertu eta mapa toponimiko zaharra berriztea proposatuz. Baiezkoa eman nuen, susmatu gabe, orduan, horrelako lan batek eskatzen dituen dedikazioa eta denbora. Hiru urtez buru-belarri jardun nuen informazioa batzen. Lehendabizi landa-lana eginez, baserritar lur-jabeei elkarrizketak egin eta leku-izenak Soraluzeke geografian kokatzen. Ondoren, artxiboko lanean, dokumentuetatik toponimoak erauzten, sailkatzen eta erreferentziak gordetzen. Hiriguneko zein mendiko, lekukotasunen fidagarritasunaren galbahea pasa ostean, 1.500 leku-izen inguru batu nituen. Soraluzeren muga barneko 14,22 km koadrotan sakabanaturik zeuden toponimoak orotarikoak ziren: etxe-izenak, kale-izenak, erreka-izenak, mendi-izenak, baserri-izenak, abeletxe-izenak, zuhaitz-izenak, landare-izenak, iturri-izenak, putzu-izenak... guztiak sailkatuz osatu nuen corpusa. Urte batzuetako etenaren ondoren, 2020an, datu-baseko informazioa berrantolatu eta Soraluzeke mapa toponimikoa aurkeztu zen udalean.

Orain, gradu bukaerako lan hau egiteko, berriz jo dut informazio iturrietara. Oraingoan, baina, bilketa lan automatikoa ez bezala, beste prestakuntza eta exigentzia maila bat eskatzen duen lan bat egiteko asmoz: zenbait toponimo berezi xeheki analizatzeko helburuz.

Beste herri batzuetako toponimia lanetan ikusi dugu toponimo guztiekin egin daitekeela iruzkintxoren bat, askotan azalekoa; dela osagaiak zatituz, dela hitz barneko gertaera fonologiko bat azalduz, dela izen bat beste batekin alderatuz, dela izen baten arrarotasuna azpimarratuz... Horrenbestez, gure lan honen helburua izan da toponimo hautatu zenbaiten azterketa xeheago bat egitea; horretarako, kontuan hartu ditugu beste autore batzuek izen edo osagai bati buruz esandakoak, gure toponimo bati dagokion gertaera fonologiko batez aipatutakoak, toponimo batek beste herri batzuetan izan ditzakeen aldaerak, etab. Horretaz gain, lekukotasunen kontraesanak argitzeko saioa ere egin dut, herri etimologiak detektatuz, eta hizkuntz ezaugarri dialektal batzuen bilakabidearen kronologia xume zenbait proposatuz.

Lan honen helburua, labur esanda, herri jakin bateko toponimian sakontzea izan da, alderdi dokumentaletik, lexikologikotik zein etimologikotik. Horrela, uste dugu aurrerapen bat dakargula Soraluzeke izenen azalpen eta ulermenean. Halaber, espero dut lantxo hau etorkizuneko lan zabalago baten lagin eta eredu izatea.

2. Corpora eta iturriak

Soraluzeko toponimiaren sailkapen eta azterketa hau egin ahal izateko corpus bat osatu behar izan dugu. Datuak jasotzeko bi informazio iturri erabili dugu: landa guneko eta erdiguneko ahozko informatzaileena batetik eta iturri dokumentaletako informazioa bestetik. Landa gunean baserritarrak elkarrizketatu ditugu. Eurak dira lurren jabe, eta leku izen askoren jakintza gordetzen dutenak.. Oso baliagarria izan zaigu informazio hau, batez ere, izenon bilakaera aztertzeko. Artxiboan jaso ditugun leku-izenek, duela hiru, lau edo bost gizaldikoak, egungo baserritarren ezpainetatik irten arte zein bilakaera izan duten jakiteko aukera eskeintzen digute. Orotara, 76 informatzailerekin elkartu gara.

Baserritarregana jo dugunean galdetegi bat eraman dugu prestatua. Lehenik, ezagutzen dituzten baserri inguruko zein auzoko lur sailen izenak zerrendatzeko eskatu diegu. Ondoren, beharrezko izan denean, guk geneuzkan erreferentziatzeko batzuetatik galdetu diegu: ea ezagutzen zuten, entzuna zuten, kokatzeko gai izango ziren.... Baserri bakoitzeko bizilagun zaharrenarekin egotea izan da gure asmoa, eta informatzailearen osasun egoera ona izan denean horrela egin dugu, buruz burukoan batzuetan eta senideren bat ondoan zuela besteetan.

Kaleko informatzaileei dagokienez, 10 lagun izan dira elkarrizketatuak. Hauekin hiriguneko toponimoak hobeto ezagutu nahi izan ditugu, arreta berezia jarriz oikonimoei, ohartuak baikara etxe-izenak izendatzeko ohitura galdua dela. Adinekoenekin ikusi ahal izan dugu etxe-izenak eraikitze formulak erabili eta ezagutu izan dituztela: etxe jabearen izena/gaitzizena/lanbidea + *-koa/-eneko* formula hain zuzen ere. Jasotako etxe-izenok idatzizko iturrietan aurkitu ditugunekin alderatu ditugu ondoren.

Idatzizko dokumentazioa izan da, arestian aipatu bezala, Soraluzeko leku-izenak aztertzeko erabili dugun bigarren iturria. Datu gehien Soraluzeko Udal Artxiboan aurkitu dugu. Bertan, zaharrenak, Bergarako Udal Artxiboko eskribautza fondoari dagozkionak dira, 1539 eta 1845. urte bitartekoak. Dokumentazio hau Soraluzekoa izan arren Bergarako artxiboan egon da gordeta duela urtetxo batzuk arte. Artxiboan aurkitu dugun beste informazio iturri garrantzitsu bat “Libro de ayuntamientos de Placencia” izeneko bilduma bat da, 14 liburukiz osatua, 1649tik 1912. urte bitarteko garaia jasotzen duena. Eta hirugarren iturri nagusia, “Protocolos de escribania de Placencia” deritzona,

1803tik 1816ra bitartekoak eta “Protocolos sueltos” edo askeak XVII.-XVIII. gizaldietakoak.

Soraluzeko udal artxibotik kanpo, Oñatin dagoen “Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa” arakatu dugu.

Gure corpora osatzeko lan metodologia sinplea izan da: leku izenak aurkitu ahala datu basean txertatu, toponimo bakoitzarendako fitxa bat sortuz eta dagokion informazio iturri edo ahozko- informatzailearen izena eta lekukotzaren data jarritz. Horrela 1500 leku izenen fitxak bete arte. Horietarik, esan bezala, 75 mamitsuenak hautatu eta iruzkindu ditugu.

Iturrien zehaztapenik ez dugu hemen emango, toki murriztapenengatik. Datu basean, ordea, denak bilduta daude.

3. Toponimoak

Aztertu ditudan toponimoak sarreratan antolatu ditut *Onomasticon Vasconiae* bildumako hainbat lanen eredura (ik. Ugarte 1998; Salaberri: 1994). Sarrera bakoitzak lau atal ditu:

- a) Toponimoaren izena, udaletxeko mapa toponimoaren arabera.
- b) Gure izenarentzat aurkitu ditugun lekukotasunak, corpusean zehaztutako iturrien arabera.
- c) Gure inkestetan jendearen ahotatik jaso dugun izenaren ebakera.
- d) Analisisiren atala, zeinetan orotariko azalpena ager daitezkeen: dialektologia lexikoari dagozkionak, azalpen etimologikoari dagozkionak, aldaera fonetikoei dagozkionak, iturrietako lekukotasunen gaineko eztabaidak, etab.

Toponimoa: AGIRREBEIZTEGI (Baserri etxea)

Iturriak: *Veiztegui* (1640); *Aguirre beiztegui* (1810); *Aguirrebeiztegui* (1853); *Agarre Bestey* (1951).

Ebakera: *Agárrebeistei* (Moises Arizaga), *Agarrebéistei* (Iñaki Elizburu), *Agárrebeisti* (Josefina Zubizarreta).

Analisia: *Agirre* baserrikoen etxetxea edo abeletxea izan zen XVIII. mendera arte. Lehen osagaiak bokal asimilazioz *Agarre* eman du, agian tarteko *Agerre* batetik pasa ondoren, eta dardarkari aurreko $e > a$ bilakaeraren ondoren: *Agirre* > **Agerre* > *Agarre*. Bigarren osagaiak, *beiztegi*-k, *behi*- eta *-tegi* osagaiak izan ditzake; hala ere, balizko bi osagaion arteko *-z-* geratzen da azaltzeke.

Toponimoa: **AGIRREBOLUNA**(Baserri-errota)

Iturriak: *Aguirreboluna* (1675); *Aguirreboluna* (1806); *Aguirre-Boluna* (1857); *Agarre Bolu* (1951).

Ebakera: *Agárrebolu* (Antonio Oregi), *Agárrebúlu* (Juan Carlos Larreategi).

Analisia: *Agirre* baserrikoen errota-etxea. Bigarren osagaia latinezko *molinum*-etik eratorria. *Bolunegi* eta *Bolumburu* leku-izenek bezala, idatziz hitz bukaerako sudurkaria gorde du. Nolanahi ere, bukaeran *-n* duen *bolun* aldaera ugaria da toponimoetako lehen osagai gisa ageri denean; askoz bakanagoak dira *bolun* + *-a* modukoak, eta Eleizalderen (1923: 447) zerrendetan baizik ez dugu aurkitu gureaz besteko adibide bakarra.

Bolun- ekin batera errota adierazteko *igera* izena ere aurkitu dugu Soraluzeko leku-izenen artean. Ikus beherago *aurtengoigerea*.

Toponimoa: **AIERDI** (Aurkintza)

Iturriak: *Ayardi* (1556); *Ayardi* (1706); *Ayerdi* (1799); *Aisardi* (1803); *Ayerdi* (1845).

Ebakera: *aixérdi* (Basilio Gabilondo); *aixérdi* (Jose Mari Lete); *aixérdi* (Luis Mari Unamuno); *aixérdixa* (Juan Jose Eguren); *aixérdi* (Pedro Mari Santamaría).

Analisia: Mitxelenak (1955: 38) uste du *ai(h)er* izenak “propensión, inclinación” adiera duela eta ugari direla *ayar(r)- ayer(r)-* hitzez hasten diren abizenak, hala nola: *Ayardi*, *Ayarragaray*, *Ayerbe*, *Ayerdi*, *Ayerza*... Hala ere ez du baztertzen *ayar(r)- aiñar* “brezo”-ren aldaera bat izan daitekeenik, diptongo ostean sudurkaria galdu edo gordeko zukeena (cf. *Laiotz* “paraje sombrío” vs ‘laino’). Soraluzen *iñarbaso* leku-izena ere aurkitu dugu (*Yñarbasua*, 1848); datu honek zaildu egiten du gure ustez *Ayñar-* > *Aiar-* bilakabidea. Gure kasuan, dardarkariaren aurrean *-er-* > *-ar-* bilakatu bide zen: *aiardi* >

aiardi. Azken lekukotasunetan *aiardi* forma nagusitu da. Ahoz, goranzko diptongoa hausteko -x- epentetikoa tartekatu du bokal artean: *aixerdi*.

Toponimoa: AINGERUSOROA (aurkintza)

Iturriak: *Anguerusoro* (1822); *aingueru saga* (1951).

Ebakera: *aingérusogúa* (María Ariznabarreta), *aingérusopía* (Jesús Ariznabarreta).

Analisia: bigarren elementuak dardarkari bakuna galdu du, eta *soo*, *soandi*, *soobískar*, bezalakoak entzun daitezke; baita ere goranzko diptongoa hausteko -g- epentetikoa ere: *sogua*. Bigarren osagaiari dagokionez, lat. *angelum* -etik hartu du zuzenean mailegua, eta bokal arteko -l- > -r- aldaketa jasan du. Ahozko lekukotasunetan sudurkari aurreko diptongazioa *an-* > *ain-* aurkitzen dugu: *angeru* > *aingeru*. (cf. *Aingura...*) (Mixelena 1974: 192).

Toponimoa: AITZURERLAEGI (Aurkintza)

Iturriak: *Ayçurerlaegui* (1549); *Ayçurerlaegui* (1637); *Achurerlaegui* (1661); *Achurrelegui* (1798).

Analisia: lehenengo osagaia *aitzur-* da, bigarrena berriz *-erlaegi*, aurkintza honen azpiko aldean dagoen baserriaren izena. Osaeran *erle* + *-egi* > *erlaegi*, hitz elkartuetan lehen osagai bisilabadunaren azken bokalaren ohiko neutralizazioaz *-e* > *-a-*. *Aitzur*-i buruz, Mitxelenak (1949: 211) hauxe esaten digu. “no hay seguridad de que tenga *aitz* como componente”. Inguru horretan ez da, egia esan, aparteko haitzik ageri. Hala ere, behean datorren *aitzurkill*a izena *aitz-* ekin lotura duela ikusi dugu. Izan liteke agian, aurkintza honen orografia aldapatsuak lotura sinbolikoren bat edukitzea *aitzur* tresna-izenaren forma okerrarekin. Beste aukera bat litzateke *aitzur* > *atxur* hitzak Soraluze inguruan erabiltzen den ‘mozkor’ adierarekin lotzea. Ez da arraroa mozkorak makurturik ibiltzea, aitzurraren itxuran edo aitzur lanean ari den baten posturan, makur. Halaber, lurra lantzeko aitzurra erabiltzen den parajea izan liteke.

Toponimoa: AITZURKILLA (Haitza)

Iturriak: *Aizurquilla* (1814), *Aiz-urquilla* (1823), *Aizurquilla* (1868).

Ebakera: *atxúrkillla* (Esteban Laskurain), *aitzúrkillla* (Iñaki Elizburu), *áitzurkillla* (Jose Lizarralde)

Analisia: Mujikak (1989:73) izen honetan *aitz-* “roca” baino, *aritz-* dagoela susmatzen du. Guk eskuratu ditugun datuen arabera lehenengo osagaia *haitz-* dela ziur esan dezakegu gure corpuseko lekukotasun bati esker: “paraje que se halla una gran peña que llaman Aiz-urquilla (1823)”. Bigarren osagaiari dagokionez, Mujikak (1989: 73) etimologikoki lat. *furcillam*-ekin lotzen du: “(AN-arak, B-mond, GC, L. Horquilla, sostén de ramas demasiado cargadas de fruta)”. Lehenengo osagaia *haritz* ez izatera, baizik eta *haitz*, zail egiten zaigu bigarren osagaiaren adiera honekin lotzea.

Toponimoa: AIZKARAEGIBETIA (Aurkintza, iturria)

Iturriak: *Ayzcaraeguibeytia* (1588), *Ascarabeitia* (1588), *Azcaraeguibeytia* (1597), *Azcaraveitia* (1683); *Azcaveiti* (1868); *Azcabeiti* (1951).

Ebakera: *áskabéitxi* (Luis Mari Unamuno), *áskabeitxi* (Moises Arizaga).

Analisia: Soralezeko aurkintza eta izen bereko iturri ezagun honen izenaren azpian aska “pesebre” hitza zegoela uste izan da. Hala ere XVI. gizaldiko agirietan izen osatuagoa aurkitu dugu. Horrela zatituko genuke: *Aitz* + *garai* + *-egi* + *beitia*. Hainbat aldaketa fonologiko jasan ditu izenak gaur eguneko formara iritsi arte: *ai* > *a* monoptongazioa, herskari belarraren ahoskabetzea txistukari ostean *-zg-* > *-zk-*, *ai* > *a* soiltzea, bokal arteko dardarkariaren galera *-ara-* > *-a-* eta *it* > *itx* sabaikaritzea.

Toponimoa: AIZKOBETA (Haitzak)

Iturriak: *Aizcobeta* (1787).

Ebakera: *áizkueta* (Patxi Arizaga).

Analisia: haitzak dauden ibaiko leku bati deitzen diote horrela. *Aitz* + *-ko* (atzizki txikigarria) + *-eta* osagaiak izan ditzake. Idatziz bokalarteko *-b-* epentetiko batekin jaso zen. Egun disimilazioz *o* > *u* bokala itxi egin da *e*-ren aurrean

Toponimoa: ARMAGINGOA (Etxebizitza)

Iturriak: *Armaingoa* (1660), *Armaingoa* (1710), *Armaingoa* (1776), *Armaraicoa* (1816), *Armaraycua* (1825).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: *armagingoa* dokumentatua egon ez arren, lekukotasun zaharreneri kaso eginez gero, *armagin* (ofizio-izena) + *-koa* genuke, armaginaren etxebizitza, *-koa* leku genitiboa oikonimoak osatzeko erabiltzen den atzizkiarekin, ozen ostean ahostuna eman duena *-koa* > *-goa*. Armagin leku-izenak, bokalarteko herskari belarra galdu du: *arma(g)in*.

Toponimoa: ARRIETA (Baserri-etxea)

Iturriak: *Arrieta* (1581), *Arrieta* (1654), *Arrieta* (1857).

Ebakera: *árritxa* (José Antonio Aldazabal), *árritxa* (Esteban Maiztegi).

Analisia: *-eta* atzizkiarekin gertatu ohi denez lehen osagaiak ez du bokalik galdu (**harreta, ikus Mitxelena 1971: 242). Leku-izen bilakaera fonetikoari dagokionez, *-ie* > *-i* diptongo soiltzea gertatu da lehenik eta *-i* ondorengo herskariaren palatalizazioa ondoren *-it* > *-itx*-. Horretaz gain, ohar bedi, toponimo honen eta hizketa arrunteko haren ordainaren artean (*harrixetan*, *harrixetara*...) aldea dagoela garapen fonetikoari dagokionez; honek nabarmendu egiten du toponimoek aparteko sistema osatzen dutela hizkuntzaren barrenean.

Toponimoa: ARRITZOLAEGI (Aurkintza)

Iturriak: *Arriçolaegi* (1549), *Arrisolaegui* (1549), *Arriçolaegui* (1585).

Ebakera: *ártzolai* (José Lizarralde).

Analisia: XVI. gizaldian aurkitu ditugu leku-izen honen forma osoagoak; itxura guztien arabera baserritar batengandik baizik jaso ez dugun *ártzolai* formarekin lotu behar da *Arritzolaegi*. *Arri* + *-tz(a)* + *ola* + *-egi* osagaietan zatituko genuke. Kasu honetan ere,

artxiobotako dokumentazioak gaur egungo forma bat argitzeko laguntza berebizikoa eskaintzen digu.

Toponimoa: ASEGINOLATZA (Baserri-etxea)

Iturriak: *Aseguinolaça* (1549), *Aseguinolaça* (1585), *Aseguinolaça* (1597), *Aseinolazaco-errequea* (1809), *Azeinolaza* (1811), *Aseguinolaza* (1817), *Aseguinolatzaco-errequea* (1862), *Asiolasa barri* (1951).

Ebakera: *asíolatza* (Moises Arizaga), *asiolatza* (Iñaki Elizburu), *atxíolatza* (Jose Mari Atxa), *átxiolátza* (Jesús Ariznabarreta).

Analisia: hitz honen bilakaera posiblea hau izan daiteke: *atseginolatza* > *atseinolatza* > *atsi(n)olatza* > *atsiolatza*. Informatzaile batzuen ebakeran, txistukarien disimilazioz desabaikaritzea gertatu ahal izan da *atxiolatza* > *asiolatza*. Etimologiari dagokionez, itxura guztien arabera jatorria *atsegin* gaitzizenean dago. Beste toponimo batzuetan ere aurki daitezke giza egoera edo nortasun psikologikoak adierazten dituzten adjektiboak. Cf. adibidez, Sarako *Hasserretegui* (1609) (EHHE s.v. *haserre*). Argi dago persona baten goitizenetik sortuak direla.

Toponimoa: AURTENGOIGERA(Errota)

Iturriak: *Aurtengoyguerea* (1549), *Aurtengo yguerea* (1549), *Aurtengo yguerea* (1585).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: Mitxelenak (1955: 58) iradokitzen du *arte*-ren aldaera zaharra izan daitekeela *aurte*. Bizkaiko abizen batzuk dakartza adibide gisa: *Aurtenechea*, *Aurteingoa*... Hitz hasieran ez dira arraro *au* > *a* bilakaerak, cf. *aurkitu* > *arkitu*, *aurpegi* > *arpegi*... Eta *aurten*, uste du Mitxelenak, *aurte* hitzaren eratorri superlatiboa (*aurte* + *-en*) izan daiteke. Beste lekukotasun bat aurkitu dugu guk Sorluzeko leku-izenen artean: *aurteenbidea* (1549) : “(...) al dcho camino por su nombre llaman *aurteenbidea* camino de medio”. Bigarren osagaiari dagokionez, ez dago zalantzarik errota izendatzeko erabiltzen zela: “molino de *aurtengo yguerea*”. Toponimian gorde da *igera* izena, *molinum*-etik eratorritako *agirreboluna*, *bolunegi* eta besterekin batera: *Igueraeta* (1559), *Yguerate* (1515), (*igaráte*) ahozkoan, *er* > *ar* bilakaeraren ondotik.

Toponimoa: BAGOZKOITIA (Baserri-etxea)

Iturriak: *Bagozcoyti* (1549), *Bagozcoytia* (1549), *Bagozcoiti* (1585), *Vagozcoitia* (1784), *Bozcoitia* (1843), *Bagazgoitia* (1846), *Babosgoitia* (1853), *Bozcoitia* (1857), *Bosgoitia* (1951).

Ebakera: *boskóitxi* (Esteban Maiztegi), *boskóitxi* (Jesús Ariznabarreta), *boskóitxi* (Juan Jose Eguren), *boskóitxi* (María Ariznabarreta).

Analisia: Aukera bat izan zitekeen toponimo hau *bago* + *z* + *goitia* interpretatzea, gogoan hartuta instrumentala daramaten *urazandi*, *urazurrutia* (Mitzelena 1973³: 47) eta halakoak. Baina kontuan hartu behar da *bagozkoitia* baserri hau baino beheraxeago *bagoz* leku-izena dagoela, bigarren osagairik gabe. *Bago* + (*h*)*otz* proposa genezake, nahiz eta kokaguneari begira (ia herriguneari bertan, bereziki hotz ez den paraje batean) ez dirudien oso bideragarri. Beste aukera bat litzateke *bagoz* izenaren azpian *bagozu* edo *bagaza* moduko aldaeraren bat izatea.

Nafarroako toponimian ageri da *bagoçu* (Jimeno & Pescador 2003: 4) eta Soraluzetik gertu, *Urkizu* bezalako leku-izenak aurki daitezke. Aukera ikusten dugu, hartara, baserriaren izena *bagozu* + *goitia* izatea eta berrinterpretazioz zatiketa oker baten ondorioz baserri azpiko lekuak *bagoz* izena hartu izana.

Toponimoa: BARRUTIKORTUA (Ortua)

Iturriak: *Barrutiko hortua* (1563), *Barticorta* (1810), *Barticortu* (1810).

Ebakera: *martikortúa* (Illordo).

Analisia: gaur egungo formatik abiatzeak Martin izenarekin lotzera eramango bagintuzke ere, dokumentazioan begiratuta argi dago lehendabiziko osagaia *Barruti* dela.

Toponimoa: EDURDUNGOA (Baserri etxea)

Iturriak: *Edurdungua* (1818), *Edurdungoa* (1823), *Edurdungoa* (1857), *caserio Edurdungoa* (1951).

Ebakera: *edurdungúa* (Esteban Laskurain), *edurdúngo* (Iñaki Elizburu), *edurdúngua* (Maria Teresa Arizaga).

Analisia: Soraluzeko baserririk garaiena den honen ondoan *nevera* izeneko leku-izena dago. Neguan edurra egiten zuenean elur-zulo honetan elurra pilatu eta izotza egingo zen. Guk pentsatzen dugu baserriaren izenean jabearen ofizioa jasota datorrela. Gure herria eta inguruetan ofizio edo langintza batzuk *-dun* atzizkiarekin osatuta daude. Horrela *esnedun* ('esne-saltzaile'), *arraindun* ('arrain-saltzaile') eta *ogidun* ('ogi-saltzaile') bezalakoak ditugu. *Edurduna, beraz, 'edur-saltzailea' izan zitekeela pentsatzen dugu. Horrela zatituko genuke toponimoa: *edur* 'elur' + *-dun* (ofizioa zehazteko erabiltzen den atzizkia) + *-go* (oikonimoak osatzeko erabiltzen den genitibo atzizkia) + *-a* (artikulua). Azpimarratu nahi dugu *Edurdungoa* dela baserri bakarra Soraluzen *-koa* genitibo atzizkiaz eratua.

Toponimoa: ERNIZKETA (Baserri etxea)

Iturriak: *Hernisqueta* (1515), *Hernizqueta* (1549), *Hernizqueta* (1843), *Ermizqueta* (1951).

Ebakera: (baserri ondoan duen *San Marsial* ermitaren izenaz ezagutzen da).

Analisia: lekukotasun guztietan (*h*)*ernisqueta* jaso badugu ere, Arrasateko erdi aroko *Herenusqueta* / *erenuzqueta* / *eremuzqueta* (Ormaetxea 1996: 185-186) baserri-izen eta abizenari erreparatuz, susmoa hartu dugu agian hauxe izango dela Ernizketa baserri-izenaren jatorria. Izen hau herriko beste aurkintza baten izenarekin alderatuz gero (*hererunçaga*, *helerunçaga* eta *heremunçaga*) proposa dezakegu *hereruntz* + *-(k)eta* izenak bilakabide hau izan duela: *herenuntz* (sudurkariaren asimilazioz) > *herenuz* (kontsonante soiltzeaz) > *hernuz* (-r- eta -n- arteko bokal galerarekin) > *herniz* (*u* > *i* bokal itxien arteko aldaketarekin) + *keta* > *ernizketa*.

Toponimoa: ERREKAGAIZTOA (Aurkintza)

Iturriak: *Errecagaiztoa* (1549), *Herrecagastoa* (1549), *Errecagistua* (1608), *Recagaisto* (1674), *Errecagaizto* (1780).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: *erreka* + *gaizto* osagaiez sortua. Leku honek dituen erreferentzietan, bitxia da izen hau lotuta agertzea “valle”, “termino”, “puesto”, “paraje” moduko izenei; behin ere ez dugu aurkitu espero zitekeen “arroyo” edo “riachuelo” modukoren batekin. Honek erakusten du izenak jatorrizko lekutik (errekatik) inguruetara izan duen hedatzea.

Adierari dagokionez erreka ‘zaila’, ‘malkartsua’ izan liteke, cf. *Sorogastoa* abizena, (*ArchMondII* 1429).

Toponimoa: EZKERTEGI (Aurkintza)

Iturriak: *Esquertegui* (1549), *Ezquertegui* (1586), *Ezquertegui* (1642); *Ezquertegui* (1951).

Ebakera: *eskértei* (Javier Elizburu “*Txurrukazpi*”), *éskertei* (Iñaki Elizburu).

Analisia: Gure leku-izena *esquertegui/ezquertegui* formapean jasota badator ere, Eibarko lurretan, Soraluzerekin mugan, *ezkerretegi* (1571) forma jaso genuen.

Jatorria horixe izan dezake agian: *ezkerretegi* > *ezkertegi*, cf. *barrenetxe* > *barnetxe* (herriko baserri-izena). Bestela, eta urrutiago joanda, proposa dezakegu *ezki* + *erre* (ikus Soraluzen bertan *otaerre*, *gisatserre*) > *ezkerre* + *-tegi* > *ezkertegi*.

Beste aukera bat da *Ezkerra* deituratik abiatuta, *ezkerrategi* izatea, cf. *Apalategi* (EHHE s.v. *apal*) eta asimilazioz *Ezkerretegi* ematea eta ondoren *Ezkertegi*.

Toponimoa: EZOZIA

Iturriak: *Oçeyçi* (1549), *Oçeisi* (1561), *Oceysi* (1574), *Oçeiçia* (1585), *Oceyçi* (1591), *Ezoizia* (1653), *Ecoycia* (1655), *Ozezia* (1688), *Ozezia* (1706), *Ozeizia* (1711), *Ezoçia* (1715), *Ozeizia* (1716), *Ozezia* (1731), *Ezocia* (1740), *Ozecia* (1748), *Ezocia* (1760), *Ozocia* (1817), *Ezocia* (1822), *Esoci* (1829), *Ezozia* (1852), *Ezocia* (1857).

Ebakera: *etzósi* (Jose Antonio Aldazabal), *esósi* (Pilar Belategi) *etzósi* (Juan Basilio Aizpiri), *etzósi* (José Lizarralde), *etsósi* (José Mari Urizar).

Analisia: Soraluzeko ama birjinaren izena da *Ezozia*. *-a* ez du berezkoa, artikulua baizik (cf. *Oçeyçisoro*, 1545). *Oçeyçi*-tik *Ezozi*-rako bilakabidea metatesi bidez azal daiteke. Bilakabide horren lehenengo zantzua *Ezoizia* da 1653. urteko testigantza idatzia. *Ezoçia* lehenengoz 1715. urtean aurkitu dugu. Horrela azal dezakegu hortaz: *ozeizi* > *ezoizi*

(metatesi bidez) > *ezozi* (bokal soiltzez, *oi* > *o*). Ez dugu asmatu hala ere zein den toponimo honen osaera zehatza.

Toponimoa: GABOLATS (*etxe eta kale-izena*)

Iturriak: Gabolas (1575), Gavolas (1666), Gabolas (1775), Gaolach (1804), Gavalach (1846), Gabolas (1951).

Ebakera: gabolatx

Analisia: erdiguneko kale bati izena eman zion etxe-izena da *Gabolats*. Lehen osagaia *Gabi-* izango balitz, “martinete o maza grande de herreria” (Mitxelena 1973: 90), zentzuzkoa litzateke *Gabiola-* hitz hasiera. *Io* > *o* soiltzea azaldu beharko genuke. Bukaerari dagokionez, ezin baztertu *aitz* > *atx* mendebaldeko bilakabidea, cf. *aitzurkill* > *atxurkill*; ezta ere *-lats* “arroyo” (Mitxelena 1973: 120), Gabolats etxe ondotik errekatxo bat pasatzen dela kontuan hartuta.

Toponimoa: GALTZAIDUKOA (Etxe izena)

Iturriak: *Galzayducua* (1824), *Galzaiducua* (1844), *Galzaiducua* (1858), *Galzaiducoa* (1951).

Ebakera: *galtzairukúa* (José Mari Lete).

Analisia: XIX. gizaldian lekukotzen da etxe-izen hau, *Askiza* etxe-izen zaharragoaren partez. Ez dakigu, altzairuaren produkzioarekin zerikusirik izango duen edo jabearen gaitzizena izango zen *galtzaidu* + *-koa* genitiboa oikonimoak sortzeko atzizkia. Hitz honetan ohikoa da *-d-* eta *-r-* arteko nahastea. Ahoz ere *galtzairukua* esan digute, dardarkari bakunez.

Toponimoa: GISATSERRE

Iturriak: *Guisaserre* (1570).

Ebakera: gixázar (Moises Arizaga).

Analisia: Osaeraz *gisats* ‘isats’ “retama” (Mitxelena 1973: 107) + *erre* “quemado” (Mitxelena 1973: 85) dela esango genuke. Jatorrizko *Guisats*-ekin batera (*Guisaserre*, *Gisastimunoeta*) itxura guztien arabera hitz-hasierako belar ahostuna galdu duen (*g*)*isats* (ikus beherago *itsasoegi*) aldaera ere ageri da herriko leku-izenen artean. Hitz hasierako belarraren erorketa azaltzeko cf. *guizirudiaga* > *izurdiaga* (Mitxelena 1973: 107) Bigarren osagaia *-erre* ere *otaerre*, *olaerreaga* eta agian arestian aipatu *ezk(i)erretegi* izenetan ere.

Toponimoa: IBAOLA (aurkintza)

Iturriak: *Ybaola* (1570), *Ybaola* (1654), *Ybaola* (1670), *Ybaola* (1839).

Ebakera: *Ibóla* (Eugenia Igarzabal).

Analisia: Ibai inguruko aurkintza bat denez, pentsatzen dugu toponimo hau *ibai* + *ola* elementuez osaturik egon daitekeela. *Ibola* egungo ahozko formara iristeko bilakabide hau jarraitu bide du: *Ibaiola* > *ibaola* lehenik, eratorrietan kontsonanterdiaren galeraren ondorioz cf. *ibaieta* > *ibaeta*, *idoieta* > *idoeta* (FHV, 176), eta *ibaola* > *ibola* azkenik, *ao* > *o* soiltzearen ondoren.

Toponimoa: IDARRONDO (aurkintza)

Iturriak: *Yrarrondogoena* (1549), *Yrarrondogoena* (1549), *Yrarrondo* (1572), *Yrarrondogoena* (1581), *Irarrondo goena* (1585), *Yllarrondo* (1807), *Illarrondo* (1951).

Ebakera: *iárrondo* (Luis Mari Unamuno), *ídarrondo* (Jeús Ariznabarreta).

Analisia: Leku-izen honen bilakaera aztertuz ikus dezakegu jatorrizko *irar* izenaren bilakera fonologikoa nolakoa izan den. Mitxelenak aipatzen du (1957) nola Uhlenbeck ohartua zen hitz barneko *r...rr* kontsonanteen disimilazioaz. Mitxelenak berak zehazten du (FHV, 258) ohikoak direla bokal arteko *l / r(d)* aldaketak hitz berean *-r-* eta *-R-* aurkitzen diren kasuetan, cf. *erur* > *edur/elur*, *berar* > *bedar*. Ez bide da zaharregia disimilazio joera hau Erronkariko, Bizkaiko eta hegoaldeko hizkerek ez baitute bereziki nabaritu. Gure leku-izenaren kasuan ere horrelaxe gertatu da, XVI. mendearen bukaera aldera arte ez da kontsonante aldaketarik gertatu. Hurrengo lekukotasunean *Illarrondo* (1807) aurkitzen dugu jada. Leku-izen honen lekukotasunak aztertzean atentzioa eman

digun beste kontu bat hitz-elkarketan dardarkari bakuna aurkitzea izan da: *Yrarondo*. Grafia kontua izan daiteke, eta berez *YraRondo* izan; beste aukera bat da garai hartan *irar* izenaren bigarren dardarkaria ere bakuna izatea eta horregatik eratorpen-elkartuetan *r* bakuna gordetzea. Cf. *ur / uralde*.

Toponimoa: IDOIA (aurkintza)

Iturriak: *Ydoia* (1812), *Ydoya* (1823), *Ydoy barrena* (1823).

Ebakera: *iróixa* (Pedro Mari Santamaria), *íroixa* (Moisés Arizaga), *iróixa* (Javier Santamaría), *iróiko láua* (Esteban Maiztegi), *iróiko láua* (Javier Elizburu), *iróiko laua* (Javier Santamaría).

Analisia: *r/d* ohizko nahasketa gertatu da ahozkoan: *iróixa*. Bukaerako *-a* artikulua dela erakusten du forma konposatuak: *ydoy barrena* eta genitibodun formak: *iroiko laua*.

Idoi izena “poza” , “charco” da Mitxelenaren (1955:103) arabera. Izenaren jatorriaz ari delarik, Irigoyenek (1987: 249-250) uste du *idoi* ur “agua” izenaren elkarketako *u-* formaren *i-* aldaera dela, eta adibide paralelotzat Hiribarrenen *iholde* ‘*uholde*’ aipatzen du. Salaberriren (1994: 60) ustez, berriz, *idoi* hitzaren oinarrian *ihi* landare-izena dago, atzizki multzokaria gehienbat landare-izenekin azaltzen delako, nahiz eta aitortzen duen bestelakoekin ere agertzen dela cf. *harridoia*, *maldadoia*.

Salaberriren uste hau bat letorke Soraluzeko *Idoia* aurkintzaren ezaugarriekin, putzuaren bueltan *ihi* landarea baitu. Hala ere, Irigoyenen etimologiarekin bat eginez, EHHEn hitza *i-doi* osagaietan zatitzen dute. Lehen osagaia *hur* da, eta bigarrena *dohi* izan daiteke, *lohi*-ren (jad. akit. *lohi*) eta *-do.i* atzizkiaren arbasoa (FHV, 108). Erronkarietazko azken silabako *idói* azentuerak iradokitzen du inoiz bi silabakoa izan zela atzizkia; *lohi*-k ere horren alde egiten du, Mitxelenarekin bat eginez hitz bera dela onartuta, eta tarteko kontsonantea *-h-* izan zitekeela argitzen du gainera.

Horrenbestez, *idohi* (< *hur-dohi*) ‘ur uher, lohi’ edo ‘ur multzo’ berreraiki daiteke. Lehen osagai *hur*-ek disimilazioz galdua du haren hasperena (*u* < *uh* < *huh* < *hur*) eta, hala izanik, hirugarren silabatik hastapenera pasatutakoa da *hidoi/hiroi* formatako hasperena (ik. *harea*, eta, erro berarekin, *hibai* < *ibahi*, baina *idor*, *ibar*). Hasperena, beraz, bigarren osagaiarena da, ez *hur*-ena.

Toponimoa: IGALDE

Iturriak: *Ygalde* (1822), *Igalde* (1951).

Ebakera: Igálde (Eugenia Igarzabal).

Analisia: Susmoa dugu leku honetatik gertu zegoen errota bategatik *Igera* + *alde*-ren laburdura izan daitekeela izen hau. Lehenik dardarkari aurreko *-e* bokala ireki eta *-a* eman du. Ondoren berriz tinbre bereko bi bokalen artean dardarkaria desagertu eta bokalak soildu dira: *igera* + *alde* > *igeralde* > *igartalde* > *igalde*. Beste aukera bat izango litzateke *ugalde* izatea, *u* > *i* aldaketa ohikoarekin.

Toponimoa: INTXAUSTI (Baserri etxea)

Iturriak: *Ynsausti* (1549), *Ynsausti* (1585), *Ynsausti* (1710), *Ynchausti* (1776), *Ynchausti* (1849), *Inchausti* (1849), *Inchausti* (1951).

Ebakera: *Íntxaustei* (Basilio Gabilondo).

Analisia: Baserri-etxe honen izena ondo lekukotua daukagu XVI. mendetik gaur egunera arte. Izen honek oinarrian 'intxaur' fruitua duela nahiko agerikoa da. Hala ere azaldu egin behar da *r* > *s* bilakabide fonetikoak, herriko beste aurkintza batzuek (cf. *Ynchaurdizulo* (1823), *Ynchaurzabal* (1803) bilakabide hori jasan ez dutenez gero. Txandakatze berean aurkitu ditugu *sagar* izenaren eratorri hauek: *sagarbieta* (1570), *sagarbacoehaga* (1570), *sagastia* (1807), *sagastiondo* (1846) Mitxelenak (*FHV*, 242) iradokitzen du izen hauek *-doi*, *-d(u)i* multzo-atzizkia hartu zutenerako oinarriarekin bat eginda zutela *-tze* atzizkia, euskal eremuko ekialdean zuhaitz izenei itsatsita agertu ohi den atzizkia. Honek azalduko luke txistukari apikariaren presentzia. *Intxaur* + *tze* + *di* > *intxaur* + *z* (*tze* > *z* soilteaz) + *di* > *intxausti*; *rz* > *s* bilakabidea azaltzeko cf. *urzo* > *uso*, edo ikus behean *Urruzkarate* > *Uskate*, eta txistukari ondoko herskariaren ahostuntzea, cf: *urruzgarate* > *urruzkarate*.

Toponimoa: INTXUSU (Aurkintza)

Iturriak: *Ynsusu* (1549), *Ynchusu* (1581), *Ynchusa* (1715), *Ynchusu* (1817), *Inchusu* (1951).

Ebakera: *intxusu* (Jose Antonio Aldazabal), *intxíxu* (Pilar Belategi), *intxúsu* (Jose Luis Larreategi), *intxísu* (Basilio Aizpiri).

Analisia: izen honen oinarrian *intxusa* “saúco” dago. Hiru silabako hitzetan elkarketan azken bokala galtzen da (ikus *FHV*, 127). Osaeraz *intxus* (*a*) + *-zu* izango genukeela dirudi. Eratorri eta elkartuetan bizkarkaria eta apikariak bat egiten dutenean ohikoa da apikariaren aldeko neutralizazioa eta horixe gerta bide zen hemen ere.

Toponimoa: **IRAEBAN** (Aurkintza)

Iturriak: *Yraeban* (1558), *Yraeban* (1868), *Iraban* (1951).

Ebakera: *irában* (José Antonio Aldazabal), *irában* (Ignacio Alberdi), *irában* (José Lizarralde).

Analisia: *Ira* ‘garo’ edo “helecho” adierarekin ugari agertzen da Soralueko toponimian: *yrabeco* (1868), *yraegui* (1572), *iraola* (1549), *yraceta* (1859)... Hala ere, toponimian gorde dena herritarren hiztegitik desagertu da. *Ira* izenaren orde, toponimian ageri ez den (agerpen bakarra 2012ko katastro fitxa batean, *garo-sail-haundia*) *garo* erabiltzen da.

Izenaren jatorriari dagokionez *Ir(a)eban* izena *ira* + *eban* elementuez osatua dago eta “sitio en que se corta helecho” adiera du Mitxelenaren ustez (1973: 106). Honen pareko *gareban* eta *garaman* ere badaudela gaineratzen du.

Egungo hizkeran bokal soiltzea gertatu da: *iraeban* > *iraban* (*ae* > *a*).

Toponimoa: **IRAOLABEITIA** (Baserri etxea)

Iturriak: *Yraolabeytia* (1549), *Yraolabeytia* (1585), *Yraolaveitia* (1775), *Yraolaveitia* (1844), *Iraola Beitia* (1951).

Ebakera: *iraolabéittikoerrékia* (Antonio Oregi), *iráolabéitxiko errékia* (Lorenzo Eguren).

Analisia: *Iraolabeitia* baserria baino gorago *Iraolagoitia* baserria aurkitzen da. Horrelako izen pareak ugari erabiltzen dira toponimian dela paraje baten, kale baten edo baserri baten bereizketa egin behar denean. Horrelako pare bereizleak aurkitzen ditugu

Soraluzeko toponimian ere: *-beitia / -goitia, goen / barren, andikoa / *hamendikoa / beña (<behen-a, ik. Irurebeña).*

Toponimoa: IRIARTE

Iturriak: *Yrigarte* (1549), *Yrigarteburu* (1549), *Yriarte* (1581), *Yrigarte* (1590), *Yriarte* (1775), *Irigarte* (1775), *Yriarte* (1841), *Irigarte* (1850), *Yrigarte* (1859), *Iriarte* (1951).

Ebakera: *Iriárte* (Esteban Maiztegi), *Iriárte* (Juan José Eguren).

Analisia: Bizkaiko eta Arabako toponimiako zenbait ezaugarri fonologiko eta lexiko partekatzen dituenz gero, ikus: *beltz/baltz, aurten...* espero zitekeen Soraluzen Bizkaitik Errioxara arte (Caro Baroja 1945: 186) toponimian agertzen den (*h*)*uri* aurkitzea eta ez beronen Ekialderagoko (*h*)*iri* aldaera, ikus *Irigoen, Iriarte, Iribe*. Mitxelenak ere (1973:159) horrela dio: “hay *u* en Alava, Vizcaya (con inclusión de la zona de habla vizcaína en Guipúzcoa) y el valle navarro de Lana”. Ez da hau Soraluzen betetzen.

Jaso ditugun ahozko lekukotasunetan horrela ez bada ere, iturri idatzietan *Yrigarte* forma da nagusi, *-g-* herskari epentetikoaz. Eguneroko lexikoan *bigar/bixar* bezelako txandakatzeak ere entzuten dira, *iges* ‘ihes’ eta *oge* ‘ohe’ modukoekin batera.

Toponimoa: IRIBE (Basarri etxea)

Iturriak: *Yribe* (1549), *Yribe* (1666), *Iribe* (1713), *Iribe* (1857).

Ebakera: *iríbe* (José Atonio Aldazabal), *iríbe* (Ignacio Alberdi).

Analisia: Salaberrik (1994: 83) *iri* “barrio” -rekin lotzen du. Gurean ere adiera hori egokiagoa da Mitxelenak (1973:106) damaigun “villa” baino. Baserri hau, ermita eta baserri multzo batez osatutako *iri* baten azpikaldean dago. *iri+be*, beraz, ‘iriaren azpiko aldea’ bezala ulertzen dugu. Sarri *-be* atzizkia *-gain-*i kontrajarria agertzen bada ere, *Iri* inguru honetan *Irigoen* eta *Iribe* ditugu, ohikoago diren *Irigoen / Iribarren, Irigain / Iribe* bikoteen partez.

Toponimoa: IRIGOEN

Iturriak: *Yrigoen* (1549), *Yrigoen*(1585), *Yrigoen* (1606), *Yrigoen* (1762), *Yrigoyen* (1837), *Yrigoyen* (1857), *Irigüen* (1862).

Ebakera: *irigoen* (Aldasoro), *irígoin* (Ignacio Alberdi), *irígoin* (Pilar Belategi), *irígoin* (José Lizarralde), *irígoin* (Esteban Maiztegi).

Analisia: Salaberrik (1994:83) azterketa lanean honela definitzen du leku izen hau: “IRIGOIENA: Barrio alto o barrio de arriba”. Guk oster, gure kasuan eta beherago *Kalegoen / kalebarren* bikotearekin zabalago azalduko dugun bezala, *Iri-* aren ‘gorenko alderdia’ dela uste dugu, “parte alta del barrio” esango genuke.

Goian aipatu bezala, *Irigoen*-ekin batera *Iribarren* agertu ohi da toponimian. Ez dugu bigarrenaren erreferentziarik. Eduki izan bagenu, *Iri*-aren ‘beherengo alderdia’ adiera izango luke gure ustez. *Iria* (ermita eta etxe multzo kontzentrazioa) baino beherago, *iri*-tik kanpo esango genuke, *iribe* baserria dugu, ‘iriaren azpiko aldea’ adierarekin. Egungo ahoskerari dagokionez, *oe* > *oi* bihurtu da bukaerako *-n* aurrean *irigoen* > *irigoin*, hitz hasierako *goen-* ez bezala, ikus *goenetxea* > *guenetxea*.

Toponimoa: IRULOPES ANAEAK

Iturriak: *Yrulopes anaeaq* (1688), *Yrulope anaeaq* (1706), *Yrulopeta* (1774), *Yrulopeta* (1804), *Yrulopeta* (1855), *Irulopeta* (1951).

Ebakera: *irúlipeta* (Basilio Gabilondo), *illúpeta* (Pedro Lizarralde), *irúpeta* (Pedro Lizarralde).

Analisia: Lopes deitura zuten hiru anaien lur zatiari izen hau jarri bide zioten. Jatorrizko izenak kamuste handia jasan du eta dokumentazioaren laguntzarik gabe ez genuke jakingo izenaren jatorria zein den.

Interesgarria iruditu zaigu leku-izen honetan agertzen den *anae* hitzaren bilakaera aztertzea. Gaur egungo hizkeran mugagabeen *anai* dugu. Espero liteke hortaz, *-i* bokalaz bukatzen diren izenak bezala mugatzailearekin *i + a > ixa* bilakaera, cf. *mendi + -a > mendixa* baina Soralezeko euskaran ez da *anaixa* forma erabiltzen. Agirietan aurkitu dugun *anae* formari esker dakigu *anae > anai* bilakabide hori ez dela aspaldikoa eta hiztunen gogoan gorderik dela oraindik *anae* zaharra.

Toponimoa : IRUREANDIKOA (Baserri-etxea)

Iturriak: *Yrure* (1585), *Yrure* (1654), *Yrure andicoa* (1656), *Yrure de alla* (1810), *Yrure el grande* (1810), *Plaza de Yrure-Mayor* (1939), *Irure Aundi* (1951).

Ebakera: *Irúre*, *Irúreaundi*.

Analisia: Elkarren ondoan bata bestea baino goraxeago aurkitzen diren bi baserriren arteko bereizketa egiteko gazteleraz “allende / aquende”, “de allá / de acá”, “suso / yuso” eta antzerako osagarri pareak erabili izan dira. Idatzizko iturriak aztertzen baditugu ohartuko gara 1810. urtean nahaste gaizto bat gertatu dela euskara eta gaztelerazko lekukotasunen artean. *Yrure andicoa* (1656) “de mas alla” bi eratara dator 1810ean: *Yrure de alla* zuzen jaso, eta *Yrure el grande*, gazteleratik euskerarako itzulpen oker baten ondorioz. Harrez gero, baserriok *Irure aundi* eta *Irure txiki* bezala ezagutzen dira.

Toponimoa: IRUREMENDIKOA (Baserri-etxea)

Iturriak: *Yrurebeña* (1810), *Yrure Aquende* (1819), *Yrure Yuso* (1850) eta *Irure chiqui* (1951).

Ebakera: , *Irúretxiki* (Basilio Gabilondo).

Analisia: Gorago edo herrigunetik urrutiago dagoen baserriaren jatorrizko izena *andikoa* dela onartzen badugu, beheiago dagoen baserria *emendikoa* edo *amendikoa* (Soraluzeko hizkeran) agertzea espero genuke. Ez dugu baina guk horrelakorik jaso. Agertu dira ordea *Yrurebeña* (1810), *Yrure Aquende* (1819), *Yrure Yuso* (1850) eta *Irure chiqui* (1951). *Yrurebeña*-ren bigarren osagaia superlatibo bat genuke Mitxelenaren ustez (1973: 68): *be(h)en* “(el) de mas abajo”, disimilazioz *been* > *bein* eman duena Bizkai aldeko toponimian, cf. *Barruetabeña*, *Agirrebeña*...

Toponimoa: ITXASOEGI

Iturriak: *Ysasoegui* (1549), *Ysasoguieta* (1549), *Ysasoegui* (1581), *Ysasoegui* (1650), *Isasoegui* (1776), *Ysasoegui* (1856), *Ichasoy* (1857), *Ichasuegui* (1861), *Ichasoy* (1951).

Ebakera: *itxásoi* (José Ramón Etxebarria), *ítxasoí* (José María Atxa), *ítxasoí* (Juan Carlos Larreategi).

Analisia: (*g*)*isats* “retama” + *-so* + *-egi* atzizkiez osatua. Hitz hasierako herskaria galdu du leku-izen honek, herriko beste leku izen batek (*gisatserre*) ez bezala. Badirudi metatesi bidez bilakatu dela *isatxoegi* > *itxasoegi*. Egungo ahozkeran *egi* > *i* laburdura gertatu da: *itxasoegi* > *itxasoí*.

Toponimoa: KALEBARREN (Kale-izena)

Iturriak: *Barrencalle* (1642), *Calebarren* (1653), *Calebarren* (1803), *Barrencalle* (1826), *Calebarren* (1842), *Barrencalle* (1845), *Calebarren* (1872).

Ebakera: kalebarren (Javier Santamaría).

Analisia: Kale-izen hau eta jarraian datorren *kalegoen* aztertuko ditugu jarraian, *barren/goen* osagai pareak izan ditzakeen erabilera, hitz barneko kokaleku eta adiera desberdinak argitze asmoz. Mitxelenak (1973:112) aipatzen du euskal eremuaren mendebaldeko herrietako kale nagusiak horrela izendatu ohi direla: *barrenkale* “calle de abajo”, *artekale* “del medio” eta *goenkale* “calle de arriba”.

Ez dugu zalantzarik herri askotan kale horiek Mitxelenak emandako adiera izango dutenik. Soraluze eta beste herri txiki batzuetan ordea, erdi aroko harresien barruan kale bakarra zegoen. Soraluzen garbi ikusten da hori, *kalegurutze* izeneko kaleak kale nagusia bitan banatzen duela, ibaia erreferentzia hartuta goiko aldekoa bata eta beheko aldekoa bestea. Horregatik uste dugu ‘behe aldeko kalea’ edo ‘goi aldeko kalea’ adiera barek, *kalegoen* ‘kalearen goena, gorengo aldea’ dela eta *kalebarren* berriz ‘kalearen barrena, beheengo aldea’. Ikus jarraian *Kalegoen*.

Toponimoa: KALEGOEN (Kale-izena)

Iturriak: *calegoen* (1563), *caleguen* (1666), *calegoen* (1706), *calegoen* (1816), *calegoen* (1831), *calegoen* (1844), *calegoen* (1889).

Ebakera: orokorra.

Analisia: *goen/barren* azterketarekin jarraituz, osagai hauen hurrenkerari erreparatuko diogu jarraian, uste baitugu, *Goenkale* eta *Kalegoen* izenetan *goen*-en posizioak adiera desberdinak eman ditzakeela. *Goenkale* (leku baten, herri baten, adibidez) ‘goenean dagoen kalea’ izan daiteke. *Kalegoen* berriz, ‘kalearen goena’. Hurrenkeraren balioa beste leku-izen batzuekin ere ikus dezakegu: *Goenetxea* (leku baten edo auzo baten) ‘goenean dagoen etxea’ izan daiteke, eta *Barrenetxea* (leku baten edo auzo baten) ‘Barrenean dagoen etxea’. *Etxegoen* eta *Etxebarren* berriz, erreferentziazko etxe baten ‘gorengo’ eta ‘beherengo’ alderdiak izango lirarteke. Beste adibide bat, *Zupidebarrena*, ikus beherago.

Toponimoa: LARREATEGI

Iturriak: *Larreategui* (1549), *Larriategui* (1549), *Larriategui* (1581), *Larriategui* (1585), *Larreategui* (1731), *Larreategui* (1850), *Larreategui* (1857).

Ebakera: *larreátegi* (José Antonio Aldazabal), *larreátei* (Ignacio Alberdi), *larriátegi* (Javier Santamaría), *lártei* (José Lizarralde).

Analisia: Mitxelenak (1973: 35) *Larreategui* “(la) casa de (los) Larrea” dela uste du. Gu ere bat gatoz berarekin, determinatzailearen presentziak abizen bat erakuts dezakeela. *Larre* “pastizal”-ekin loturarik izango balu *larretegi* edo *larrategi* espero genukeelako. Antzekoa da *Apalategi* deitura.

Toponimoa: LIZARRUGITA

Iturriak: *Liçaruguita* (1655), *Liçar ugueta* (1661), *Lizar uguita* (1684), *Lizarurieta* (1684), *Liçarubitta* (1684), *Lizarrangueta* (1773), *Lizarrangueta* (1846), *Lizarrangueta* (1951)

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: Susmoa dugu bigarren osagaia inguru horretan kokatzen den beste leku izen baten laburdura dela: *ubegieta* (1588) > *ugita*. Konposizioan *u-* izan daiteke *ur*: cf. *urbide* > *ubide*. Beraz, osaeran, *Lizar* + *ubegi* + *eta* osagaiak izango genituzke.

Toponimoa: MADARIMAKATZ (Aurkintza)

Iturriak: *Madarimacaz* (1754), *Madary macaz* (1812), *Madari-makar* (1862).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: Mitxelenak (1973: 425) *makatz* “árbol frutal bravío”, “peral silvestre” bezala definitzen du. Soraluzen ere *Makatz*a madari mota bat da eta izen horrekin ezagutzen dute baserritarrek, Madaritik bereizia. *Madari* izena ere erabiltzen da, eta toponimian ere bada, *Madari* baserria. Leku izen honetan izen generikoaren ondoan dator, horrela ezagutuko zen seguraski XVIII.-XIX. mendeetan.

Toponimoa: MADURAEGI

Iturriak: *Maduregui* (1655), *Maduregui* (1661), *Maduraegi* (1844), *Maduregui* (1951)

Ebakera: *marúri* (Javier Elizburu “Txurrukazpi”), *maúri* (Josefina Zubizarreta), *madúri* (José Ramón Lete)

Analisia: Leku-izen hau *Madura* “marisma” (< lat. *padule*) + *-(h)egi* “ladera” atzizkiaz osatua dago (Mitxelena 1973: 145). Jaso ditugun lekukotasun historikoak ikusita, pentsatu dugu *Maguregi* abizena eren leku-izen honetatik eratorria izan daitekeela, nahiz eta Mitxelenak *maguri* “fresa” hitzarekin lotzen duen. Aldaera honela azalduko genuke: *Maduraegi* > *maduregi* > *ma(d)uregi* > *Maguregi*, cf. *lubarri* > *lugarri*.

Toponimoa: MALMATEGI (Aurkintza)

Iturriak: *Malmadi* (1649), *Malmategui* (1675), *Malmategui* (1807), *Malmategui* (1819), *Malmatey* (1831), *Malmategui* (1852), *Malmategui* (1951).

Ebakera: *málmatei* (Oscar Gallastegi), *málmatei* (Ignacio Ariznabarreta), *málmatei* (Moisés Arizaga).

Analisia: *malma* + *-tegi* (nahiz eta lekukotasunik zaharrenean *malmadi* agertzen den). Itxura guztien arabera ‘Malma landarea egiten den lekua’ litzateke *malmategi*. Enplastuak egiten omen zituzten landare honekin, Mogelen Peru Abarka esaten zaigunaren arabera (OEH s.v. *malba*): “Iminiko deusugu koipe ta malmazko enplatu bat, miñak gitxitu dakizuzan”. Ahozko erabileran bokalarteko herskari ahostuna galdu da: *malmategi* > *malmatei*.

OEHn malma aldaeraren lehendabiziko lekukotasuna Mogelena da. Gure honek hitz honen lehen agerrera 150 urtez aurreratzen du.

Toponimoa: MAGOZKORTA

Iturriak: *Maozcorta* (1569), *Magoscorta* (1588), *Mooscorta* (1588), *Moscorta* (1699), *Mozcorta* (1822), *Mozcorta* (1826), *Mozcorta* (1858), *Mozcorta* (1951), *Moscorta* (1951).

Ebakera: *moskórta* (Pedro Mari Santamaría), *moskórta* (Moisés Arizaga)

Analisia: Aldaera zaharra *magozkorta* dela erabakitzen badugu, *magoz* + *korta* osagaiak genituzke leku-izen honetan. Eta honako erreferentziari erreparatzen badiogu, “dexo esta mi casa y caseria de bagozcoytia con la casilla de ganados de maozcorta”, lotura egin eta *magoz*, *bagoz*-en aldaera izan daitekeela ondoriozta dezakegu, $m > b$ ohiko aldaerarekin gertatua. Ikus, *Bagozkoitia*.

Toponimoa: MENDIOLAKO OSIÑA

Iturriak: *Playa o osin de Mendiola* (1751)

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: Orotarikoak ez du jasotzen ‘plaia’ adierarik baina hau azaltzea erraza da, jatorrizko ‘putzu’ esanahiaren zabaltze batetik: ibaiko putzu adieratik putzu horren ertzean dagoen inguruari deitzera pasatu da. Hedatze semantiko honen alde egiten du *osinluze* aurkintzak ere. Aurkintza hau lur zati aski luzea da, eta ezin dugu hortaz leku-izen hontan aurkitzen dugun *osin*-a ‘putzu’ adierarekin lotu, bai ordea “plaia”-rekin.

Toponimoa: MENDOZ (baserri-etxea)

Iturriak: *Mendoz* (1549), *Mendoz* (1585), *Mendoz* (1713), *Mendoz* (1857).

Ebakera: *méndotz* (José Antonio Aldazabal), *mendótz* (Basilio Aizpiri).

Analisia: itxura guztien arabera *mendi* + (*h*)*otz* elementuez osatua. Bigarren osagaiak bukaerako bokala galduko luke konposizioan *Mendotz* emanaz. Egia da ahozko bi

lekukotasun hauek txistukari afrikatuz ebakitzen direla, baina frikaria ere entzun izan dugu: *méndos* edo *mendós*, eta honek zalantzaren bat sor lezake bigarren osagaia *hotz*-ekin lotzeko orduan.

Baserria kokaturik dagoen aurkintzari erreparatzen badiogu, berriz, ‘hotz’ adieraren alde egingo genuke, nahiko altu baitago muno batean haizearen kontrako babesik gabe.

Toponimoa: MILLAINGERUKOA (etxe-izena)

Iturriak: *Millangerucoa* (1803), *Millanguerucua* (1809), *Millainguerucua* (1815), *Millangerucua* (1826), *Millaainguerucua* (1832), *Milla ainguerucoa* (1861).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: *mila* + *angeru* + *-koa* (oikonimoak eratzeko atzizkia). Ezin dugu jakin *Millangeru* izenaren jatorrian etxe-jabearen gaitzizena edo erlijioarekin loturiko beste izenen bat zegoen.

Toponimo honetan, hala ere, aipagarriena da nola islatzen den *aingeru* hitzaren aldaeren eboluzioa: lekukotasun zaharretan *angeru* dago eta berrietan berriz *aingeru* (Mixelena 1974: 192). Bilakabide bera jasan duten beste hitz batzuen adibideak ematen ditu: *angura* > *aingura*, *angira* > *aingira*... Ikus goian *Aingerusoro*.

Toponimoa: MUNETA (baserri etxea)

Iturriak: *Munaeta* (1518), *Munaeta* (1549), *Munaeta* (1581), *Munaeta* (1585), *Munoeta* (1661), *Munueta* (1710), *Muneta* (1850), *Muneta* (1857), *Muneta* (1950).

Ebakera: *munéta* (José Antonio Aldazabal), *múneta* (Ignacio Alberdi), *múneta* (José Lizarralde).

Analisia: Atentzioa eman digu lehen lekukotasunek *munaeta* forma izatea, izan ere, berez *-eta* atzizkiarekin ez da elkartu-eratorrietako gertakaririk espero ez baita eratorpen atzizkia (Mitxelena 1971: 242); *arteta* dugu eta ez ***artaeta*) baina baliteke ordurako eratorpen atzizki bezala sentitzea. Antzekoa gertatu ahal izan da *etxaberri* modukoekin: izen + adjektibo egiturakoa da baina elkartu-eratorrietako fenomeno aplikatu zaio.

Toponimoa: MUSKIRIZU (mendia)

Iturriak: *Musquirisu* (1549), *Musquirisu* (1581), *Musquirusu* (1588), *Musquiriçu* (1642), *Mosquirisu* (1700), *Muzquirichu* (1818), *Muzquirizu* (1823), *Monte de Musquirizu* (1860), *Muzquirichu* (1862), *Musquirichu* (1951).

Ebakera: *Muskítxu* (Gregorio Larrañaga), *Muskuritxu* (Pedro Mari Santamaría).

Analisia: *Muskiria* hitzak, Izagirrerren (1968: 16) esanetan, “lo que pone resbaladizas a las piedras” adiera du. Adiera hau bat etor daiteke izen hau duen mendiaren ezaugarriekin, txara eta goroldio asko duen ingurua baita. Izena beraz, *Muskiri* + *zu/su/tsu* atzizkiaz osatua legoke. Atzizkiaren frikari-afrikatu txandakatzea ikus dezakegu jasotako lekukotasunetan. Zaharrena, baina, Mitxelenari jarraiki (1971: 283), frikaria litzateke. Afrikatua *sarats* + *-zu* > *saratsu* bezalako bilakabideek sortutako nahasmendutik datorrela dio Mitxelenak.

Toponimoa: OBE (baserri etxea)

Iturriak: *Obe* (1555), *Hobe* (1555), *Obe* (1563), *Obeiuso* (1775), *Obesuso* (1776), *Obe* (1798) *Obe*(1860), *Obe* (1951).

Ebakera: *óbe* (Moises Arizaga)

Analisia: Mendialdeko bi etxetxo edo abeletzek izen hau zuten. Mitxelenak (1973: 135) ‘(h)obe’ “mejor” izenondoarekin lotzen du *Obea* (Tolosa, 1346) aipatuz. Mujikak (1992:333) berriz, Burgosko toponimia aztertzen ari delarik, *sarobe*-ren bigarren osagaia *-be* izan gabe, *-oe* / *obe* (“cama”) izan daitekeela iradokitzen du, “como voz de la cultura pastoril”. Mitxelenak (1973: 148) *Saroe* eta *Sarohe* (Orreaga, 1284) ere jasota dauzka. Agian izan lezake loturaren bat *oe/ohe/obe* izenak abereek atsedean hartu ohi duten lekuarekin. *Oe* > *obe* azaltzeko, ikus *aizkoeta* > *aizkobeta*.

Toponimoa: OLEA (baserri etxea)

Iturriak: *Olea* (1556), *Olea* (1571), *Olea* (1639), *Olea*(1766), *Olacoa*(1806), *Olea*(1865), *Olea* (1951), *Olacua*(1951).

Ebakera: *olá* (Juan Carlos Larreategi), *olea*.

Analisia: Baserriak *Olea* izena du, *Ola* + *-a* > *olea* bilakabidea jasan ostean. Eratorpen atzizkiekin hitz oina hartzean du *Olako*, *olara*, *olan*... Esan dezakegu *Olea* fosildurik dagoela eta ez duela Soralarzeko hizkeran ohikoa den *ea* > *ia* bilakabidea jasan (***Olia*).

Toponimoa: ONDARRA

Iturriak: *Ondarra* (1549), *Hondarre* (1564), *Ondarra* (1581), *Ondarre* (1589), *Ondarburu* (1597),

Ondarra (1639), *Ondarra* (1784), *Ondarra* (1810), *Ondarrealdea* (1810), *Los Ondarres* (1823), *Ondarre* (1862).

Ebakera: *Ondárreta* (Patxi Arizaga).

Analisia: *Ondarre* aldaera azaltzeko, uste dugu berranalisi bat gertatu dela leku-kasuetatik abiatuta: *Ondarr-era*, *Ondarr-etik* → *Ondarre*. Cf., beste hainbatetan artean, *arana* → *arane*.

Toponimoa: OREXAETA

Iturriak: *Llano de orexaeta* (1574), *Oroseta* (1812), *Oceta buru* (1823), *Ozeta buru* (1862), *Oceta-gaña* (1951).

Ebakera: *Osétako láua* (Javier Santamaría) *Ósetako láua* (Maria Teresa Arizaga).

Analisia: Mitxelenak ez du baztertzen J. Caro Barojaren *Orexa* < *Aurelia* etimologia, kontuan harturik Euskal Herrian ezagun diren *Oreja* eta *Orella* abizenak, nahiz eta zaildu egiten duen aukera hori balizko *au* > *o* monoptongazioak. Aukera hau baztertu gabe, guk posibleago ikusten dugu aurkintza honek inguruan dituen *Oregi*, *Oregierreka*, *Oregiturri* izenekin loturaren bat izatea.

Toponimoa: ORMAETXEA (etxe-izena)

Iturriak: *Hormaesea* (1549), *Hormaechea* (1557), *Ormaechea* (1584), *Ormaechea* (1591).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: Soralezeko kale nagusiko etxebizitza zaharra. Bere osagaien artean *horma + etxea* hitzak daude. Caro Barojak (1972: 147) aipatzen du ez dela arraroa Euskal Herrian eraikin batzuk horrelako izenak izatea, eraiki zirenean ez-ohiko zirelako inguru haietan. *Horma etxea* “casa hecha de muros pétreos” adierarekin lotzen du Mitxelenak (1973: 141), agian bereiziko zen inguruko egurrez egindakoetatik.

Toponimoa: OTAERRE

Iturriak: *Otaerre* (1661), *Otaurre* (1826), *Otaerre* (1868), *Otaerre* (1951).

Ebakera: *otárre* (José Antonio Aldazabal), *otárre* (Ignacio Alberdi), *otárre* (Juan Basilio Aizpiri), *ótarria* (Basilio Gabilondo), *ótarre* (José Lizarralde).

Analisia: Leku bat baino gehiago daude izen honekin. *Ote + erre* osagaiak ditu. Hitz-elkarketan lehenengo osagaiaren amaierako bokala a bihurtzen da. Bigarren osagaia, -*erre*, beste izen batzuetan aurkitzen dugu (cf. *gisatserre*, *olærreta*) eta oteak su hartu duen aurkintzari esaten zaio.

Toponimoa: PAGALDATS

Iturriak: *Pagaaldas* (1588), *Paga aldaz* (1655), *Paldaz* (1823).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: Badirudi *pago + aldats* elementuez osatua dagoela leku-izen hau. Hitz-elkarketan ohiko bokal neutralizazioa jasan du lehenengo osagaiak: *pago->paga-*. (cf. *Pagaluze* 1773, *Pagabedeincatu* 1871).

Pagoaldapa (1868) aurkitu dugu, dokumentaziotik ezin izan dugu ondorioztatu leku beragatik ari den baina ezin da baztertu *aldapa* → *aldats* aldaketa lexikoa gertatu izana. Bigarren osagaiari dagokionez, Mitxelenak (1973: 43) argi dauka aldaera *aldats* dela eta ez datorrela *aldatz*-ik.

Toponimoa: PAGOIRIBIL

Iturriak: *Pagovirivil* (1823), *Pagoviribil* (1846), *Pagobiribil* (1951).

Ebakera: *Págabil* (Iñaki Elizburu), *Paábil* (Maria Teresa Arizaga).

Analisa: Agirietan *Pagobiribil* aurkitu dugu, *Pagabiribil* forma espero genukeen arren (cf. *Pagaluze...*). Izan daiteke idazkera etimologikoa erabili delako. Ahozko forman berriz, *paga-* aldaera entzun dugu. Bigarren osagaiak *biribil* > *bil* soiltzea jasan du: *biribil* > *biibil* > *bibil* > *bil*.

Toponimoa: PINTOREARISTI

Iturriak: *Pintore aristia* (1674), *Pintore Ariztia* (1674), *Pintoreariztisacona* (1789), *Pinta Aystibarrena* (1823), *Pintori Arizti* (1833), *Pinta Aristi goena* (1868), *Pinta Aristi guena* (1951),

Ebakera: *pinntarísti* (José Larrañaga), *pintxástei* (María Angeles Ariznabarreta), *pintxéstei* (Patxi Arizaga), *pintxáisti* (Gregorio Larrañaga), *pínttaistéixa* (María Ariznabarreta).

Analisa: Artxiboko dokumentazioari esker jakin dugu *Pintxaisti* leku izena nondik datorren. “Solo sabe que siempre a oydo nombrar el referido terreno (*erlaeguiburu-achurrelegui*) con el de *pintore aristia* que quiere decir ‘roble dal del pintor’ y no con otro nombre” (1674). Aipatu pintorea Arabatik Soraluzera etorritako Ganuza abizeneko margolaria izan zen. Aristi baten jabe izateaz landa, etxe bat ere bazeukan herriaren erdigunean, *Pintorekoa* izenekoa.

Toponimoa: SAGARRAGAERREKA

Iturriak: *Presa de Sagarraga* (1549), *Presa de Sagarraga* (1774), *Sagarragaburua* (1786), *Regata de Sagarraga* (1841), *Presa de Sagarraga* (1860), *Sagarraga erreka* (1951).

Ebakera: *sagárreka* (Basilio Gabilondo), *sagarrérrekía* (Basilio Gabilondo), *sagarrerréka* (Ignacio Ariznabarreta), *sagarréka* (María Ariznabarreta), *sagarréka* (Pedro Lizarralde).

Analisa: Herriko auzo ezagun bati izena ematen dion erreka hau *Sagarraga* da. Aipagarria iruditzen zaigu izan duen bilakaera fonetikoa, *Sagarragaerreka*-tik

Sagarreka-ra. Horrelakoa izan daiteke bilakabidea: *Sagarraerreaka* > *sagarra(g)erreaka* (bokal arteko herskariaren belarraren galera) > *sagarra(a)erreaka* (bokal soiltzea: $a + a > a$) > *sagarr(a)erreaka* ($a + e > e$ soiltzea) > *saga(rre)rreaka* (bi kontsonante berdinetatik bat erortzen da) > *sagarreka*.

Toponimoa: SALOQUEN (baserri-etxea)

Iturriak: *Saloguen* (1564), *Saloguen* (1581), *Saloguen* (1642), *Saloguenguen* (1774), *Saloguen* (1805), *Salogüen de abajo* (1848), *Saloguene* (1857), *Salogüen burua* (1868), *Saloguen* (1872), *Caserío salon* (1951), *Saloguen* (1951).

Ebakera: *salón* (Jesús Ariznabarreta), *salonáspikoerrékia* (Patxi Arizaga), *salonáldia* (María Ariznabarreta).

Analisia: Aukera bat da leku-izen honetan lehenik metatesi bat gertatu izana: *Solaguen* > *saloguen*. Ondoren *saloguen* > *salogoen* > *salogon* > *salon*. Atentzioa eman digu hala ere *-guen* (ez *-goen*) atzizkia horrela jaso izana lehenengo lekukotasunetatik eta zelako bilakabide fonetikoa izan duen: *saloguen* > *salon*. *Irigoen*-ekin alderatzen badugu, ikus dezakegu idatzizko lekukotasunetan (*yrigoen* 1549, (4 bidar), *yrigoen* 1585, *yrigoen* 1606, *yrigoien* 1762, *yrigoen* 1770, *yrigoyen* 1837, *yrigoyen* 1857, *irigüen* 1862) *-goen/-goyen* jaso direla, behin *-güen* izan ezik. *Yrigoen*-en bilakabide fonetikoa desbedina izan da: *irigoen* > *irígoin*.

Izen biek *-goen* bukaera badute, nola uler hain eremu txikian bata *-goen* > *-guen* > *-n* eta bestea *-goen* > *-goin* bihurtzea? *Kalegoen* ere badaukagu, 10 lekukotasunetatik 9tan *goen*. Behin *-guen*. Zalantzan jarri behar al dugu *guen* < *goen* bilakera? *Solaguren* batetik ete dator? Honela dakar, esaterako, Eleizalde (1963: 262): “*Solaguen* o *Solaguren*, barrio de. Murelaga”. Susmagarria da, halaber, *Solo* + *goen* > *sola* + *goen* > *solaguen* baina *Soro* + *luze* > *sora luze*.

Toponimoa: SASIBELTZ

Iturriak: *Sasibeltz*bazterra (1831), *Sasi beltz* basterra (1849), *Sasibalz* (1849), *Sasibeltz* (1939).

Ebakera: *sasibéltz* (Oscar Aldazabal), *sasibéltz* (Patxi Arizaga), *sasibéltz* (...Lete), *sasibéltz* (Gregorio Larrañaga).

Analisia: Mendebaldeko toponimian eta hizkeretan ohiko den *baltz* aldaeraren presentzia eta bilakabidea neurtzen lagunduko digu leku-izen honek, lekukotasun zaharragoak dituen *aranbalç* izenarekin batera. *Sasibeltz* modernoan eta egungo ahozko hizkeran nagusitu den *beltz* aldaeraren ondoan *baltz* aldaeraren nagusitasuna erakusten du lekukotasun zaharragoak dituen *aranbaltz*-ek: *aranbalç* (1564), *aranbalç* (1589), *aranbalç* (1597), *aranbalz* (1788).

Toponimoa: TXURRUKAEN (etxe eta auzo izena)

Iturriak: *Churrucaen* (1639), *Churrucaen* (1642), *Churrucayn* (1642), *Churruquena* (1642), *Churrucacoa* (1654), *Churrucaen* (1663), *Churrucacoa* (1710), *Churruquena* (1755), *Churrucaena* (1775), *Churrucaeche* (1779), *Churruquena* (1799), *Churrucacua* (1835), *Churruquena* (1878), *Churruqueche* (1951), *Churruquena* (1951).

Ebakera: *txúrrukensogúa* (Patxi Arizaga).

Analisia: *Txurruka* baserri eta auzo izenarekin batera, *Txurrukaen* etxe-izena daukagu herri-gunean. Eta bitxia da, izan ere, herri guneko etxe-izen gehienak horrela baitaude osatuta, *-ko* atzizkiaz edo *-eneko*, *-(a)ren* + *-ko* atzizkien baturaz. *-ko* atzizkiaz osatuta daudenen artean, etxearen zertarakoa zehazten duten izenak, izen deskribatzaileak eta jabearekin lotura duten izenak aurki ditzakegu. *-enekoa* atzizkia duten izen guztiak, berriz, etxe jabearekin daude bat eginda. Soilik *-(ar)en* genitiboa daraman etxe bakarra aurkitu dugu, *Txurrukaen* hain zuzen ere. Irregularitasun honek agian aditzera eman lezake etxe-izenik zaharrenak *-en* atzizkiaz soilik eratuko liratekeela eta berriagoak *-koa* eta *-enekoa* formez.

Toponimoa: URRUZKARATE (baserri-etxea)

Iturriak: *Urruzcarate* (1549), *Urruzcarate* (1597), *Uzcarate* (1724), *Urruzcarate* (1775), *Uzcaratecoechehostecoayceta* (1807), *Urruzcarate* (1821), *Uzcarate* (1841), *Uzcárate* (1857), *Uzcate* (1951).

Ebakera: *uskáte* (Juan José Eguren), *uskáte* (Esteban Laskurain), *uskáte* (Moisés Arizaga), *uskatépe*.

Analisia: Leku-izen honen jatorrian *Urritz* + *garate* dagoela uste dugu. Bokal asimilazioa gertatu bide da lehen osagaian: *u-i* > *u-u* (cf. *urrizti* > *urrusti*, herriko beste baserri izen batekin gertatua). Txistukaria hitz-elkarketan frikaritu egin da eta bigarren osagaiaren hasierako osteko herskaria ahoskabetu egin da: *Urruzkarate*. Beste aldaketa fonetiko bat: dardarkari eta txistukari lepokari arteko bokal itxia erori *Urr(u)zkarate* eta *-rz-* > *-s-* (cf. *urzo* > *uso*). Eta azkenik bokal arteko dardarkari ahula erori da eta tinbre bereko bokalak soildu: *uska(r)ate* > *Uskate*.

Toponimoa: URTEAGAZELAI (aurkintza)

Iturriak: *llanos de Urteaga* (1588), *Urteaga Celai* (1699), *Urteaga Zelaieta* (1715), *Urteaga Çelaieta* (1715), *Urteaga Zelai de Suso* (1775), *Urteacelay* (1815), *Urteaga-Celay* (1826), *Urteaga Celay* (1951), *Uquiaga Celaya* (1951), *Urtia Celay* (1951), *Urquia Celay* (1951).

Ebakera: *urkiáselai* (Ignacio Alberdi), *urkiáselái* (Pilar Belategi), *urkiáselái* (José Lizarralde), *urtiáselái* (Ezozí Aizpiri), *urkiáselái* (Esteban Maiztegi), *urtiáselái* (Pedro Mari Santamaría), *urkiáselái* (Pedro Mari Santamaría), *urtiáselai* (Carmen Aranberri), *urtiáselai* (José Mari Atxa).

Analisia: Mendi aldean dagoen atsedeen-leku ezaguna da *Urteagazelai*, azken hamarkadetan *Urkiazelai* izenaz ezagunagoa. *Urteaga* aurkintza eremu zabala da. Ongi dokumentatuta ditugu *Urteagazelai* (urkiazelai), *Urteagamuno* (urtiámuno), *Urteagaondo* (urtíondo)...

Ez dago zalantzarik, beraz, *Urteaga* dela jatorrizkoa. Azalpen erreza du *urkiazelai* formak: duela hamarkada batzuk, *Urteagazelai* izeneko aurkintzan, *Urkiazelai* izena jarri zion kaletar lagun talde batek bertan eraiki zuten atsedeenlekuari, jatorrizko izenaren interpretazio oker bat eginda, inguruan urki batzuk zeudela eta. Berez, behar lukeen *urteaga* > *urtiaga* > *urtia* laburdura urkiarekin nahastu da.

Toponimoa: ZABALA (baserri-etxea)

Iturriak: *Çavala* (1549), *Çabala* (1585), *Zavala* (1700), *Zavale* (1710), *Zavala* (1736), *Zavala* (1775), *Zavale* (1775), *Zabale* (1784), *Zabale* (1857), *Zabale* (1951).

Ebakera: *zabále* (Antonio Oregi), *sabále* (Oscar Gallastegi), *sabalékotxábolia* (Basilio Gabilondo), *zabaléburúa* (Antonio Oregi).

Analisia: *Zabala* > *zabale* bilakaera uste dugu *Zabala* izenak deklinabide atzizkiak hartu dituenean (*zabalera*, *zabaletik*...), hiztunak zatiketa morfologiko okerra egin eta jatorrizko izena berrinterpretatuz.

Toponimoa: ZABALDUA

Iturriak: *Zabaldua* (1780), *Zabaldua* (1803), *Zabaldua* (1835), *Zabaldua* (1851).

Ebakera: *sábaldua* (Basilio Gabilondo), *sabaldúa* (Patxi Arizaga), *sabáldua* (Esteban Laskurain), *sábaldua* (José Mari Atxa), *zabáldua* (María Teresa Arizaga).

Analisia: Jose Luis Ugartek (idatziz helarazia) ez du *Zabaldu* interpretatzen, *Zabaldo* baizik. Honela dio: “Zumarraga eta Urretxun ez dago ia aldaparik gabeko lurrik, eta zabalgunek «<zabaldoak>, «txabaldoak>, «zabala>, «laugune> ...) aldapa gutxiko lekuei esaten zaie”. Posible ikusten dugu aukera hori *Zabaldo* izenak mugatzailea hartzean (*Zabaldo* + *a* > *zabaldoa* > *zabaldua*) *oa* > *ua* bokal ixte arrunta gertatu izana. Ugartek ez du, ordea, *zabaldo* izenaren erreferentzia idatzirik jaso, eta ez dugu guk ere gure agirietan ez beste toponimiazko lan batzuetan *Zabaldo*-ren lekukotasunik aurkitu. Nolanahi ere, ez dugu uste leku-izen horren azpian partizipiorik egon daitekeenik, eta, guk dakigula, laugune horiek ez ditu inork “zabaldu”. Agian *zabal* + *do* atzizkiaz osatua dagoke, cf. *Ezquerdo*, *Gogordo*, *bizkardo* (Salaberri 2008:126).

Toponimoa: ZELAIBIRIBIL

Iturriak: *Celaybiribil* (1561)

Ebakera: *Serábil* (Jesús Ariznabarreta), *serábil* (Bernardo Maiztegi) *serabílgo buelta* (Bernardo Maiztegi).

Analisia: XVI. gizaldiko agiri batean aurkitu dugu *Serabil* leku-izenaren jatorria. Izenaren desitxuraketa ezagututa, *celaybiribil* > *serabil*, ez da harritzekoa informatzaileek ez ezagutzea leku-izenaren jatorria edo adiera. *Serabil* formara iristeko zenbait bilakabide fonetiko gertatu da: *zelai* > *zela* (cf. *zelaieta* > *zelaeta*); *biribil* > *bil* soilteza (cf. *pagobiribil* > *pa(g)abil*); eta azkenik *l* > *r* bilakabidea (*zelabil* > *zerabil*) albokariaren disimilazioz azalduko genuke.

Toponimoa: ZIKIRIONDO

Iturriak: *ciquiriondo* (1661), *ciquirizo ondo* (1857), *ciquiriondo* (1951), *siquiriondo* (1951).

Ebakera: *sikíxondo* (Esteban Laskurain) *sikíxondo* (José Mari Atxa).

Analisia: *OEHk* dakarrenez, “centeno” adiera du *zikirio* hitzak. Egun *zekale* hitza da nagusi Euskara batuan. *Sikíxondo*-ra iristeko, lehenik tinbre bereko bokalen bakuntzea gertatu da hitz elkarketan: *zikirio* + *ondo* > *zikiriondo*. Ondoren sabaiurreko txistukaria epentetiko txertatu da diptongoa saihesteko: *io* > *ixo* (*zikiriondo* > *zikirixondo*). Eta azkenik, bokal arteko dardarkari ahula erori egin da eta tinbre bereko bokalak soildu: *-i(r)i-* > *-i-* (*zikirixondo* > *zikixondo*).

Toponimoa: ZUPIDEBARRENA (etxe-izena)

Iturriak: *Zupidebarren* (1768), *Zupidebarrena* (1799), *Zupidevarrena* (1800), *Zupidebarrena* (1850), *Zupide-barrena* (1856).

Ebakera: ez da jaso.

Analisia: *Zupide* hitzaren esanahi hau dago jasota *OEHn* “sendero marcado por leña que se arroja del bosque por el flanco de una montaña”. Mendian gora doan bide bat da zupidea kaleko etxe-izen honen ondoan hasten dena . *Zupidebarrenak*, beraz, zupidearen ‘barrena’, ‘beherengo aldea’ adiera du. Cf. *kalebarren*, gorago.

4. Ondorio zenbait:

Gure lan honetan hainbat motatako aurrerapenak egin ditugu:

a) Hitz zenbaiten aldaera dialektalen gorabeherak / fluktuazioak agerrarazi ditugu:

- *Sasibaltz eta ayardi* (lekukotasunik zaharrenetan) vs *sasibeltz eta ayerdi* (berriagoetan).
- Ekialde eta erdialdeko (*h*)iri hitzaren lekukotasuna eta mendebaldeko (*h*)uri aldaeraren falta.
- Mendebalde Zabaleko hizkeren $a + a > ea$ ezaugarriaren agerpena toponimian: *Aurtengoyguerea* (1549).

b) Ahozko tradiziotik jasotako zenbait toponimoren azalpen etimologikoa eman dugu.

Adibidez:

Askabéitxi < *Ayzcaraeguibeytia* (1588), *Áiskueta* < *Aizcobeta* (1787), *Ártzolari* < *Arriçolaegi* (1549), *Martikortúa* < *Barrutiko hortua* (1563), *Ibóla* < *Ybaola* (1570), *Irúlipeta* < *Yrulopes anaeaq* (1688), *Moskórta* < *Magoscorta* (1588), *Osétako láua* < *Llano de orexaeta* (1574), *Pintxástei* < *Pintore aristia* (1674), *Serábil* < *Celaybiribil* (1561).

Dokumentazioak lagundu digu azalpen etimologiko hauek argitzen, bestela, gaur egungo herritarrentzat iluna baita toponimoon osaera.

c) Gaztelerazko testuetan euskal hitz zenbaiti buruzko itzulpenak aurkitu ditugu:

- *Osin*: “Playa o *osin de Mendiola* (1751)”.
- *Aurteenbidea* (1549) : “(...) al dcho camino por su nombre llaman *aurteenbidea* camino de medio”.
- *Aitzurkilla*: “paraje que se halla una gran peña que llaman *Aiz-urquilla* (1823)”.

d) Hitz/aldaera zenbaiten lehendabiziko lekukotasunak aurreratu ditugu:

- *Malmadi* (1649): *OEHn malma* aldaeraren lehendabiziko lekukotasuna Mogelena da. Gure honek hitz honen lehen agerrera 150 urtez aurreratzen du.

f) Soraluzen egungo lexikoan desagertuak diren edo ordezkatuak izan diren hitzak aurkitu ditugu toponimian :

aldats → *aldapa*

ira → *garo*

g) Toponimoen eta hizketa arrunteko hitzen garapen fonetikoari dagokionez, toponimoek aparteko sistema osatzen dutela ikusi ahal izan dugu.

- *Arrieta* > *Arritxa* toponimian vs *harrixetan* hizketa arruntean.
- *Aizcobeta* toponimian vs *basoetan* (***basobetan*) hizketa arruntean.
- *Ola* + *a* > *olea* > ** *olia* toponimian vs *alaba* + *a* > *alabea* > *alabia* hizketa arruntean.

Ororen buru, esan daiteke azterketa toponimikoak hainbat alderditatik direla interesgarriak: gorabehera dialektologikoengatik, auzi etimologikoengatik, lexikoaren historiaren ikuspegitik, etab. Bildu dugun corpusaz baliatuta, uste dugu askotariko ikerlanak eraman daitezkeela aurrera Soraluzeko toponimiaren ezagutzan sakontze aldera. Adibidez, zenbait leku-izenen ezaugarri fonologikoen azterketa eginez: *barria* vs *berria*, *igera* vs *igara* bezalako pareen kronologia aztertuz, eta eragin dialektal desberdinak identifikatuz; *ea* > *ia* edo *oa* > *ua* bilakabidez toponimiak esan diezagukeena kronologikoki aztertuz; zenbait kontsonante epentetikoren lekukotzea arrazoitzen saiatuaz (ikus *Aizkobeta*, *Irigarte*...); zenbait leku-izenen etimologia ilunak argitzeko saioak egiten (ikus *Txurruka*, *Osuma*, *Ezozia* < *Ozeizia*...), etab. Azken finean, toponimoek mendeetan zehar gorde duten informazio linguistikoa azaleratzen saiatuz.

5. Bibliografia:

ArchMondII = Crespo Rico, Miguel Ángel & Cruz Mundet, José Ramón & Gómez Lago, José Manuel. 1996. *Colección Documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo II. (1400-1450)*. “Fuentes Documentales Medievales del País Vasco” 67. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

- Caro Baroja, Julio. 1945. *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Donostia: Txertoa.
- Caro Baroja, Julio. 1972. *Los vascos*. Madril: Ediciones Akal.
- Crespo Rico, Miguel Ángel & Cruz Mundet, José Ramón & Gómez Lago, José Manuel. 1992. *Colección Documental del Archivo Municipal de Mondragón (1260-1500)*. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco” 41. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Eleizalde, Luis de. 1923. “Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas, *RIEV* 14(3), 442-456.
- Eleizalde, Luis de. 1963. “Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas, *BAP*19(3), 241-273.
- FHV* = Mitxelena, Koldo. 1961-1977 *Fonética histórica vasca*. 2. arg. zuzendu eta zabaldua, “*ASJU*ren Gehigarriak” 4. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Irigoyen, Alfonso. 1987. “Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica”, in Ricardo Cierbide (arg.), *Pirenaico navarro-aragonés, gascón y euskera : V Cursos de Verano en San Sebastian = Donostiako Udako V Ikastaroak*, 71-156. UPV/EHU: Donostia.
- Izagirre, Cándido. 1968. “Notas lexicográficas (Urretxu-Antzuola)”, *ASJU* 2, 49-71.
- Jimeno, Roldán & Pescador, Aitor. 2003. *Colección documental de Sancho Garcés III, el Mayor, rey de Pamplona (1004-1035)*. Iruña: Nabarralde, Pamiela.
- Lakarra, 2019a, “*Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*-ren Oinarriak” in J. A. Lakarra, J. Manterola & I. Segurola 2019, xv-lxc.
- Mitxelena, Koldo. 1949. «Voces vascas. I. (*h*)egi, tegi. II. Vasco *azari*, *azeri* y *azenarius*. III. Sobre algunos elementos latino-románicos en vascuence y otras voces vascas», *Emerita* 17, 195-211.
- Mitxelena, Koldo. 1969b. “*Notas lingüísticas a Colección diplomática de Irache*”, *FLV* 1, 1-59.
- Mitxelena, Koldo. 1971. “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV* 9, 241-267.
- Mitxelena, Koldo. 1973³ [1953, 1955]. *Apellidos vascos*. 3. arg. zuzendu eta zabaldua. San Sebastián: Txertoa.
- Mitxelena, Koldo *et al.*, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario General Vasco*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mujika, Luis Maria, 1985. *Lizartzako toponimoak. Azterketa linguistikoa*, Donostia, Eusko Ikaskuntza

- Mujika Luis Maria, 1988. *Berastegiko toponimia (azterketa lexikala eta dokumentala)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Mujika, Luis Maria, 1989, *Euskal Toponimiazko materialeak. Soraluze, Bergara, Aretxabaleta*, (XVI alea) , Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mujika, Luis Mari. 1992. *El euskara en la toponimia de Burgos: nuevos testimonios*. In *Luis Villasanteri omenaldia (IKER 6)*, 311-348. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ormaetxea, José Luis. 1996. *Arrasateko Toponimia*. Donostia: Euskaltzaindia.
- Salaberri, Patxi. 1994. *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*. “Onomasticon Vasconiae” 11. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Salaberri, Patxi. 2008. *Izen ttipiak euskaraz*. “Onomasticon Vasconiae” 26. Bilbo: Euskaltzaindia.